

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Electroflak & Utt.
Flakutt.
Gaztelupeko Hotsak.
Iraupena: 31'50".
10 euro.

Natura inprobisazioa bada, izpi berritzaileak gehitu

FLAKUTT oso proiektu berezia da; Uharteko Txalaparta Tailerretik (UTT) abiatu zena. Partaide batzuek txalaparta eta horren soinuak ikertzen ziharduten denbora luzez; eta halako batean, elektronika lantzen duten bidaideak aurkitu zituzten. Hala, txalaparta eta elektronika; natura eta elektrizitatea; inprobisazioa eta aurrez grabatutako soinuak; dikotomia horretan murgildu ziren, horri hainbat ahots, poesia apur bat eta bestelako instrumentuak gehituta.

Modu horretan, elektronikari bizitasun handia eman diote, natura ere erakarritik; eta musika tradizionaleko instrumentuei kolore eta ikuspegi zabalagoa eman diete. Zuzenean gutxitan aritzen dira, eta ezin bi emanaldi berdin egin. Azkeneko hippyak Nafarroan ote diren? Seguruenik, baina birziklatzeko irudimena dute.

www.myspace.com/flakutt

Flakutt

«Txalapartak daukan elkarrizketa oinarria elektronikara eta ahotsera zabaltu dugu»

Flak-Utt. Natura eta elektrizitatea biak bat eginda?

Dena asmatuta dagoela jakinda, gauza guztiak nahastea falta zaigu. Hori edo 80ko edo 90eko hamarkadara itzultzea. Fisika Kuantikoa eta sinesmena elkartzen diren mende berri honetan natura eta elektrizitatea nahasteak erraza dirudi, ezta?

“Bizilagunaren landareak kable erraldoiak irentsi ditu”. Oreka ezinezkoa da?

Bizi dugun garaian, teknokrazia eta neoliberalismo basatia nagusi, orekak ezinezkoa dirudi. Hala ere, guk itxaropena dugu eta aldaketa datorrela uste dugu. Gizakiaren borondatearen gainetik Unibertsoaren orekan sinesten dugu.

“Beti ametsetan gaudela diote, gure ametsak beste garai batekoak direla...”. Zuek, baina, atzera eta aurrera, bietara, begiratzen duzue...

Joxean Artzek idatzi zuen bezala: “Iturri zaharretik edaten dut, ur berria edaten, beti berri den ura

betiko iturri zaharretik”.

Zer gehitu dio Flak-ek UTTri? Batasun naturala izan da, erraza?

Ilusio handia. UTT proiektu eta arlo ezberdinak sortzen saiatu da: antzerkia, performanceak, dantzak eta beste. Flakuttek hizkuntza berri bat asmatzeko UTTri eman dio UTTentzat guztiz ezezaguna zen arlo elektronikoa sartzeko bidea, eta proiektu finko batean jarraitzeko UTT inprobisaziotik idazketara bidaiatzera behartu du.

Uharteko Txalaparta Tailerrak bi buelta berri eman dizkio txalapartari?

Txalaparta bi lagun arteko elkarrizketa gisa sortzen da, eta hemen ere hori oinarri dugu. Oinarri hori musika elektronikoa eta ahotsari



zabaltuz Flakutten musika sortzen dugu. Eta bide batez musika tresnen soinuak zaharberritzen saiatu gara.

Nolakoak dira zuen emanaldiak?

Diskoak uzten ez dituen sententzioak eta diziplinak sartzen ditugu: dantza, performancea... Bidaia bat bezala ulertzen dugu, abestiak lotuak baitira, ia-ia atsedetik gabe. ■